

BEROAREN AURKAKO PLANA 2025. TENPERATURA ALTUEK ERAGINDAKO OSASUN ONDORIOEN PREBENTZIOA EUSKADIN



TOKI ADMINISTRATIOENTZAKO JARDUEREN GOMENDIOA

1. MAILA. ABISU-EGOERA TENPERATURA ALTUENGATIK

- Herritar guztiei eta udalarekin lotutako erakundeei osasun-arriskuei eta tenperatura altuekin lotutako prebentzio-neurriei buruzko informazio orokorra eman (GOMENDIO OROKORRAK) tokiko komunikabideen, informazio-pantailen, hondartzetako eta igerilekuetako sorospen-zerbitzuen eta abarren bidez.
 - Haur-eskolak.
 - Adinekoen zentroak.
 - Hiri-kanpalekuak.
 - Kiroldegiak eta igerilekuak.
 - Jantoki sozialak.
 - Aterpetxeak eta harrera-zentroak.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuen erabiltzaileen zaintza eta zainketa indartu. (ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUETARAKO GOMENDIOAK).
- Arriskuan dauden herritarrak (adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak eta adingabeak) ibiltzen diren udal-espazioen erosotasun termikoa zaindu.
- Beren ezaugarriengatik muturreko beroaren eragin negatiboak arintzeko barnealdeko eta aire zabaleko kokapenak aurreikusi, udalerrri osoan banatutako "klima-babeslekuen" sarea eratzeko.
- Udalerrian programatutako ekitaldien berri izatea, bereziki ahalegin fisiko handia eskatzen dutenak, pertsona-kontzentrazio handiak sortzen edo eguneko ordu nagusietan egiten direnak. Ekitaldietarako eremu publikoa okupatzeko baimenak berrikusi, eta tenperatura altuen egoerari eta gomendioei buruzko informazioa eman.

2. MAILA. ALERTAK TENPERATURA ALTUENGATIK

1. mailan adierazitako gomendioez gain, honako hauek gomendatzen dira:
- Larrialdi-egoeretan udalaren jarduera-planean adierazitako zerbitzuak ohartarazi.
 - Halakorik ezean, egoera horietan jardun dezaketen udal-zerbitzuak aktibatu (babes zibila, udaltzaingoa, gizarte-zerbitzuak, boluntarioen elkarteak, etab.)
 - Etxez etxeko laguntza-zerbitzuek edo bestelako udal baliabideek artatutako pertsonen zaintza eta zainketa areagotu, bakarrik bizi diren pertsonen arreta berezia eskainiz.
 - Udalerriko klima-babeslekuen kokapenaren berri eman, bereziki, beroaren ondorioz zaurgarrienak diren biztanleen artean.

3. MAILA ALARMA TENPERATURA ALTUENGATIK

Alarma-egoeran, aurreko jarduerak areagotu egingo dira, eta Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak koordinatutako larrialdi-egoeren jarraipen-mahaiak erabakitako ezohiko neurriak hartuko dira kontutan.